



ITUNAK ekarriak

2007an irakaskuntza publikoa hobetzeko Hezkuntza Ituna sinatu genuen modu kritikoan.

Horrela laburtu genituen orduan gure ekinbide sindikalaren mugarriak:

- Hezkuntza **sare publiko eta kalitatezkoa** babestea.
- Irakasle kontratatuen eskakizunekin bat egitea: **LEP, antzintasuna, familia laguntza, udan kobratzea...**
- **55 urtetik gorakoendako ordu murrizketa.**
- **Irakaskuntza zuzeneko ordu murrizketa.**
- Formazio **iraunkorra.**
- Urte **sabatikoa.**
- Lanaldi **jarraia** eta **malgua.**
- Erretiro-**eskersariak.**
- Ikasleak **auzoan** edo **herrian eskolatzeko** eskubidea.
- **Herri txikietako** eskolak laguntzea.
- **Ikasleen beharrak** asetzeko nahikoa bitarteko izatea bai **langile aldetik** bai hornidura **material aldetik.**
- Euskara: hizkuntza **murgilketa** eta **birtziklatze** ikastaroen alde.
- **Ratioak jaitea** hezkuntza kalitatea ahalbidetzeko biderik hoberena baita.
- **Kanpo eraso** eta eskola **jazarpenaren kontrako** neurri eraginkorrak ezartzea.
- **LH garatzea** eta **euskarazko** eskaintza zabaltea.
- **0-3a** Hezkuntza Departamenduak kudea dezala.
- Lan osasuna sustatzea: **prebentzio plana.**



**NAFARROAKO
IRAKASKUNTZA
PUBLIKOAREN
KALITATEA
HOBETZEKO
ITUNA**



Gure hezkuntzaren egunerokoak arduratzen gaituelako...

Irakaskuntza publiko, integratzaile eta euskaldun batean sinisten dugulako...

Irakaskuntzan, STEE-EILAS!

lortutakoak



- **Zuzeneko irakaslan orduen murrizketa:**
 - Ertainetan 18 orduetatik 17 orduara.
 - murrizketak adinagatik.
- Lan **banaketa:**
 - urte **sabatikoa:** arautegia eta 160 baimen 4 deialditan.
 - Nafarroako Gobernuaren LOE erretiro eskersariak igo egin dira eta **borondatezko** erretiroari ere ematen zaizkio.
- Lan **Eskaintza Publikoa:** 3 urte hauetan 2.204 plaza atera dira. (2007an, 449, 2008an, 590, 2009an, 600 eta 2010ean, 565).
- Euskara **birtziklaia:** 2008-2009an 5 plaza gehitu dira.
- Ikasketa **lizentziak:** 2008-2009an 4 plaza gehitu dira.
- Lanaldi **jarraia:** 4 ikastetxetan jarri zen martxan 2007an, 2 gehiagotan 2008an eta beste 3tan 2009an.
- Lanaldi **malgua**, asteko 2 arratsalde libre: 2008an 6 ikastetxetan paratu zen.
- **Lanbide Heziketa: Ikastetxe Politekniko Integratuak** sustatu dira eta **berritze proiektuak** garatu dira; ziklo berrietako irakasleen **prestakuntza** bultzatu da, ikastetxetako makineria berri eta tarteko zikloan **tutoretza ordu bat** gehitu da.
- **Ertainetan:** DBHn ordu bat gehitu zaie tutoretza orduei eta beste ordu bat hizkuntza modernoari 1., 2. eta 3. mailetan.
- **Kontratatuak:**
 - antzinasuna (kinkenioak).
 - betetzeko zail diren ikastetxeetan hiru ikasturtez aritzeko aukera.
- Ingeleseko saio gutxiago emateagatik **Haur Hezkuntzan** euskara **murgilketari** emandako laguntza.
- **Aniztasunari** arreta eskaintzeko **neurriak:** dexente igo dira lanpostuak.
- Zonalde **koordinatzailea** herri eskoletan.

betegabeak

(ahalegindu bagara ere)



- Haur eta Lehen Hezkuntzan **ez** dute 23/22ra **murriztu**. Hizkuntza Eskoletan ez dute 17ra murriztu.
- Hizkuntza Eskolan **55, 56** eta **57tik gorakoei ez** zaie murrizketarik eman.
- Adinagatik emandako murrizketa daukatenak beste lan batzuk egitera behartzen dituzte. Murrizketak ez dira ageri plantilletan.
- Ibiltaritza orduen konpentsazioa ez da irakaskuntza zuzeneko ordutzat jotzen.
- LEP 2011: itundutako lanpostuen **%29** eskainiko da soilik, gehienak ingelesez.
- Euskara **birtziklaia**: 2009-2010ean 5 plaza gutxitu dira. 2010-2011an ez dago deialdirik.
- **Ikasketa baimenak**: 2009an modalitatea aukera aldatu egin da. 2011an ez dago deialdirik.
- **Lanaldi jarraia**: ez dago deialdirik 2010ean.
Lanaldi malgua: ez dago deialdirik 2009tik.
- **Lanbide Heziketa**: ez dago diru hornidurarik, ez formazio jarrairik, makineria zaharberritzeko inbertsioa gelditu egin da. Ez da euskarazko eskaintzarik.
- **Krisiaren aitzakian emandako atzerakadak**: soldata murrizketa, lan erreforma, pentsio erreforma, aurrekontu murrizketak ordezkapenetan duen eragin kaltegarria, hornidura falta ...
- Irakasleen prestakuntza: %50ean murriztu dituzte aurrekontuak 2009tik Hona. Itunak gehikuntzak aurreikusten zituen.
- **Kontratatuak**: gradoa kobratzea, familia laguntza eta uda kobratzea.
- **Arautegia**: ez da neurririk jaso arautegian, ez da **Ikastetxeetako Erreglamendu Organikorik (IEO)**, ez eta irakasleen ordutegia eta lanaldia arautzen duen dekretorik.



etorkizunerako proposamenak



- **Eskola Publikoaren babesa** irakaskuntzaren ardatza baita. Hornidura duinak.
- **Arautegiaren eguneratze eta garatzea**, itunaren bidez lortutakoa jaso dezala.
- Gauzatu ez diren neurriak inplantatzea: 23/22 saio, irakaskuntza zuzeneko ordu kopuru berdina irakasle guztientzat, espezialistak barne.
- Heda dadila **D eredia Nafarroa osora**. A eredia indar dadila eremu ez-euskaldunean metodogia berrituz.
- **Krisiaren aitzakian emandako atzerakadak deuseztatzea**: soldata murrizketak, funtzionatzeko diru-hornidura gutxitzea, euskara birtziklapenean murrizketak, pentsioak, erretiroak...Krisiari aurre egiteko neurririk garrantzitsuena da Hezkuntza eta prestakuntzan inbertitzea.
- **Ikastetxeen kudeaketa**: hezkuntza komunitate osoak parte har dezala.
- **LEP**: Hezkuntza Sistemaren beharrak betetzea, **plantilla organikoak** bat egin dezala **funtzionamendu plantillarekin**, horrela enplegu ez-egonkorra egonkor bihurtuz.
- **Kontratatuak**: kontratazio irizpide egokiak, kontratu duinak eta uda kobratzea.
- **0-3 zikloak**: Hezkuntza Departamenduak kudea dezala zuzenean.
- Derrigorrez izan dadila **Berdintasun plana** ikastetxe guztietan.
Irakaskuntza interkulturala: integratzailea eta aberasgarria denondako.
- **Ratioak** jaitsi.
- **Elkarbizitza** eta **eskola-jazarpena prebenitzeko planak** egin eta gauzatu.
- **Herri eskolei** bere izaera aitortu.
- Eskola Mapa: **ikasleak** modu **egokian banatzea**
- **Irakasleen** lan burokratikoan **murrizketa**.
- **Titulu** bidezko **gaitzea**.

IRUÑA-PAMPLONA

Descalzos, 72 (behea)

☎ 948 21 23 55 📠 948 22 97 90

✉ nafarroa@stee-eilas.org

stee-eilas.org